


# 2017KO EMAITZEN AURKEZPENA

2018ko otsailak 27



# FY2017 helburuak betetzea

- Bi digituko hazkundea ✔
- Irabaziak goranzko joera ✔
- Eskarien zorroa mantendu da ✔

*(milioi eurotan)*

| | 2017 | 2016 | % ald. |
|---|---|---|---|
| Eskarien zorroa | 6.265 | 6.228 | % 1 |
| Kontratazioa | 1.514 | 2.677 | % -43 |
| Salmentak | 1.477 | 1.318 | % 12 |
| EBITDA marjina | % 12,2 | % 10,3 | - |
| EBIT marjina | % 9,9 | % 8,5 | - |
| Emaitza garbia | 43 | 37 | % 14 |
| Zirkulatzailea | 247 | 253 | % -2 |
| Finantza-zor garbia | 219 | 265 | % -17 |
| Burtsako kapitalizazioa 2017/12/31 | 1.172 | 1.313 | % -11 |

# 2017ko mugarri nagusiak

- CAF Taldearen 2020. urterako ekimen estrategikoak martxan jartzea: hazkundea, eragingarritasuna eta digitalizazioa
- Taldean bitarteko berriekin hazkunde-ziklora egokitzea: ingeniaritzako eta garapeneko zentroa Beasainen, hedapena eta eguneratzea CAF Mexikon…
- Lursailen erosketa eta lantegi berriaren eraikuntza-lanak hastea Newporten (Gales, Erresuma Batua). 2018. urtearen erdialdean hasiko dira lanean
- M&A: BWB eta RIFER erostea CAF T&E eta MiiRA filialak hazteko, hurrenez hurren.

# Aurkibidea



- Kontratazioa
- Eskarien zorroa
- Emaitzen kontu bateratua
- Egoera-balantze bateratua
- Burtsako informazioa
- Aurreikuspenak
- Eranskinak

# Kontratazioa

Laugarren hiruhilekoan kontratazioak izan duen suspertzeari esker, ekitaldirako ezarritako **kontratazio-helburua** lortu da

*(milioi eurotan)*

| | 2014 | 2015 | 2016 | 2017 [1] | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | 1.HH-4.HH | 1.HH-4.HH | 1.HH-4.HH | 1.HH | 1.HH-2.HH | 1.HH-3.HH | 1.HH-4.HH |
| Kontratazioa | 1.895 | 902 | 2.677 | 232 | 454 | 547 | 1.514 [2] |
| *"book-to-bill"* | *1,3* | *0,7* | *2,0* | | | | *1,0* |

**Sinatutako** eta eskarien zorroan jasotako **kontratu** nagusiak honako hauek izan dira **2017ko laugarren hiruhilekoan** [3]:


Stockholm (Suedia)


Auckland (Zeelanda Berria)


De Lijn (Belgika)


West Midlands (Erresuma Batua)


Manila (Filipinak)


Napoles (Italia)


Metro Express (Maurizio)


Budapest (Hungaria)

[1] Kontratazioa honela lortuta: (Aldi amaierako zorroa – Aldi hasierako zorroa + Aldiko salmentak). Kontratuaren sinadura hartu dugu eskarien zorroan aitortzeko irizpide gisa

[2] Zifra horrek ez ditu jasotzen kontratatutako proiektu batzuetan aurrez ikusitako aukerak.

[3] Erreferentziatutako proiektuen ezaugarri nagusiak eranskinean daude jasota.

# Kontratazioa

*(jarraipena)*

2017 urte fiskaleko kontratazioa, beste behin, Europa kontinentean pilatu da batez ere, eta indarrez azaldu da APAC eskualdea

2017ko ekitaldiko kontratu nagusiak = 1.139M€

Kontratazio osagarriak = 375M€[1]




[1] Gutxi gorabeherako kontratazio hori, besteak beste, mantentze-lanein eta laguntza teknikoarekin, MiiRAren kontratazioekin eta core negozioko beste lerro batzuekin lotuta dago. Abian dauden proiektuetan egindako doiketak ere biltzen ditu (plusbalioak, minusbalioak eta bihurketako doiketak batez ere).

| Hiria | Irism. |
|---|---|
| Kontratu data | Zorroko zenbatekoa |

Tranbia/LRV — Metroa — EMU/DMU/atoian eramandako kotxea/tren-makina — S Zerbitzuak (ibilgailuen kontratazioari lotutako zerbitzuen kontratazioa)

# Kontratazioa

*(jarraipena)*

**Kontratazio berriaren profila bat dator** azken ekitaldietakoarekin

FY2017ko kontratazioaren ezaugarriak

**Alderdi esanguratsuak**

- Sarrera **Alemaniako zerbitzuen** segmentuan (20 urtez unitateen mantentze-lanak Schönbuchbahn-entzat)
- Unitateak hornitzeko proiektu berria **Erresuma Batuan.** CAF Taldearentzat esanguratsua den merkatuan duen **posizioa sendotu du** horrek
- **Bezero ezagunen konfiantza** berritu da: Auckland, Stockholm, Budapest edo Kansas hiriak, adibidez
- Kontratu askok **aukera osagarri batzuk** biltzen ditu; honako hauek, besteak beste: De Lijn-erako (Belgika) tranbiak, Napoleseko metroa edo Seattlerako tranbiak

**Profila**

- Kontratazioaren erdia baino gehiago **Europan** pilatzen da
- Hazten ari diren herrialdeetako **dibisekiko** esposizio txikia
- **Plataforma-proiektuen** proportzio handia
- Aurrerakinekin egindako ordainketa-baldintzak eta **tarteko kobrantza-mugarriak**

# Eskarien zorroa

2016ko errekorreko zorroa gainditu du

## Eskarien zorroa




2017ko abenduaren 31n, **eskarien zorroak maximo historikoa** lortu du 6.265 milioi eurorekin; hau da, 2017ko salmentekiko, 4,2koa izan da.

Zorroaren zati nagusia, oraindik ere, nazioartean dago eta, batez ere, Europako herrialdeetan.

# Emaitzen kontu bateratua
# > Salmentak

Negozio-zifra igo egin da eskarien zorro zabalari esker

Europako jatorria duten salmenten adierazgarritasuna gero eta handiagoa da

**Negozio Zifraren Zenbateko Garbia** Bilakaera

*(milioi eurotan)*




**Negozio Zifraren Zenbateko Garbia**
Banakapen geografikoa[1]




[1] % 5 baino gehiagoko pisu erlatiboa duten herrialdeak.

# Emaitzen kontu bateratua
# > Salmentak

*(jarraipena)*

## Igoera negozio guztietan

*(milioi eurotan)*

| Negozio Zifraren Zenbateko Garbia<br>Segmentuen araberako banakapena | 2017 | 2016 | Ald. % |
|---|---|---|---|
| Ibilgailuak | 933 | 829 | % 12 |
| Zerbitzuak | 377 | 350 | % 8 |
| Errodajeak eta osagaiak [2] | 72 | 68 | % 6 |
| Beste negozio batzuk [1] | 95 | 71 | % 34 |
| | 1.477 | 1.318 | % 12 |







[1] Trakzio- eta kontrol-ekipoen, komunikazio-sistemen, seinaleztapen-sistemen, integrazioko ingeniaritzaren eta EPCaren negozioak biltzen ditu besteak beste.

[2] Errodajeen eta osagaien negozioa MiiRA markaren bidez merkaturatzen da.

# Emaitzen kontu bateratua
# > Salmentak

*(jarraipena)*

## Eskualdeko tren-unitateek
Ibilgailuen negozioko salmenten erdia baino gehiago biltzen dute

### Ibilgailuen negozioko salmentak

35 proiektu baino gehiago abian 2017an




Abian dauden proiektuen erdia baino gehiago plataforman oinarrituta daude

*Abian dauden proiektu esanguratsuenak*

| | | | |
|---|---|---|---|
|  | Toluca hiriarteko trenak | *Civity* | • 30 x 5 kotxe |
|  | EMUak eta DMUak Northern-Arriva | *Civity UK* | • 12x4 + 31x3 EMU eta 25x2 + 30x3 DMU |
|  | Caledonian Sleepers kotxeak | | • 75 kotxe |
|  | Kotxeak eta EMUak Transpeninne-First Group | *Civity UK* | • 66 kotxe + 12x5 EMU |
|  | Txileko metroak | *Inneo* | • 37x5 kotxe |
|  | AVE Flytoget | *Oaris* | • 8x4 kotxe |
|  | EMU NS | *Civity* | • 68x3 + 50x4 |

# Emaitzen kontu bateratua
# > EBITDA

EBITDAren igoera
jarduera maila handiagoaren eta **eragingarritasuneko neurrien** ondorioz

## EBITDA




Abian dauden proiektuen, industria-jarduera suspertu izanaren eta proiektuen egikaritze onaren "mix"ak zehaztu dute ekitaldiko EBITDA.

Eragingarritasuneko neurriak programa hauetan aurrez ikusitakoaren arabera garatu dira:

| | |
|---|---|
| Plataformak eta moduluak optimizatzeko programa | • Mekanismoa sendotzea<br>• Eragingarritasuna hobetzea |
| Eragiketa industrialak aldarazteko plana | • Estadiak (kalte-ordainak) eta fabrikazioko lead-time-a gutxitzea<br>• Fabrikaziok ZULean aurrezkiak dituzten proiektu pilotuak<br>• Gainerako proiektuetarako hedapena abian |
| Erosketen plana | • Esparru-akordioak sendotu dira hornitzaile estrategikoekin<br>• Arreta BCC[1] herrialdeetan |
| LCC kostuak gutxitzeko plana | • Diseinuan eta erosketetan eragina izateko koordinazioa esparruekin<br>• Bultzada mantentze-estrategia aurreratuei |

[1] Best Cost Countries

# Egoera-balantze bateratua
# > Kapital zirkulatzailea

**Zirkulatzailearen kontsumo txikiagoa,** jarduera handitu arren
Enpresaren zirkulatzaile mailaren **pixkanakako normalizazioa**




Kapital zirkulatzailea gutxitu egin da hirugarren urtez jarraian eta, horrekin lotuta, kontuan izan behar da jarduera gero eta handiagoa dela.

Ordainketarako aldeko baldintzak dituzten eta abian dauden proiektuek bultzatu dute bilakaera horren zati bat.

Jarduera igo den arren, inbentarioko bolumen txikiak mantendu dira biltegietan.

[1] Balantzeko kontu-sail hauek biltzen ditu:
- "Beste zordun batzuk": Beste zordun batzuk, zerga korrontearekin lotutako aktiboak, aktibo korrontetik eratorritakoak eta beste aktibo korronte batzuk.
- "Beste hartzekodun batzuk": Hornidura korronteak, bezeroen aurrerakinik gabeko beste hartzekodun batzuk, zerga korronteengatiko pasiboak eta pasibo korrontetik eratorritakoak.

# Egoera-balantze bateratua
# > Finantza-posizioa

Finantza-posizio sendoa,
negozio korporatiboaren kutxa positibo garbiarekin

## Finantza arloko Zor Gordina

*(milioi eurotan)*

| | 2011 | 2012 | 2013 | 2014 | 2015 | 2016 | 2017 |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Emakiden zor gordina | 239 | 492 | 446 | 421 | 346 | 364 | 283 |
| Zor gordin korporatiboa | 9 | 101 | 268 | 429 | 531 | 403 | 406 |
| GUZTIRA | 248 | 593 | 714 | 850 | 877 | 767 | 689 |

Emakidei lotutako zor txikiagoaren eraginez, Finantza Zor Gordina 78 milioi eurotan gutxitu da.

Zor gordinak amortizaziotik eratorritakoaz gain beste jaitsiera bat izan du dibisaren bihurketaren eraginez (45 milioi euro).

## Altxortegia eta finantza arloko inbertsioak[1]

*(milioi eurotan)*

| | 2011 | 2012 | 2013 | 2014 | 2015 | 2016 | 2017 |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| GUZTIRA | 300 | 208 | 202 | 306 | 399 | 502 | 470 |

Enpresaren altxortegiaren posizioa sendoa da.

[1] Ikus Urteko Kontu Bateratuetako 14 h) oharreko banakapena

## Finantza arloko Zor garbia




Enpresaren Finantza Zor Garbiak jaisteko bilakaerari eutsi dio. Ondorioz, DFN/EBITDA ratioa emakidak hasi zirenetik maila baxuenean kokatu da.

Negozio korporatiboa kutxa garbi positiboarekin mantendu da ekitaldian jarduerak igoera nabarmena izan duen arren.

[2] PPP-5000 Brasilen eta L12 Mexikon

# Egoera-balantze bateratua > Finantza-zor garbia (FZG)

Emaitza gorakorra eta zirkulatzaile kontrolatua oinarritzat hartuta, **kutxa sortu da**

*(milioi eurotan)*




[1] Dibisen bihurketa-eraginak kontuan hartu gabe kapital korrontean izandako aldaketak

# Egoera-balantze bateratua
# > Finantzaketa-lineak

## Zorraren **birnegoziazioa** kreditu-erakundeekin

2016. urtearekin alderatuta, enpresaren zorraren epemugak luzatu eta finantzaketa-kostua gutxitu egin dira.




## Finantzaketa-iturrien dibertsifikazioa: Ordaindukoak jaulkitzeko programa

Enpresak epe laburrerako ordaindukoen jaulkipen-programa erregistratu du 2017ko abenduaren 21ean Irlandako Burtsan. Haren hasierako gehieneko bolumena 200 milioi eurokoa da.



28 Anglesea Street, Dublin 2
Tel +353 1 617 4200
Fax + 353 1 677 6045
info@ise.ie
www.ise.ie

Irish Stock Exchange

Please be advised that the Irish Stock Exchange has approved the Listing Particulars referred to below:

| | |
|---|---|
| (a) Name: | Construcciones Y Auxiliar De Ferrocarriles, S.A. |
| (b) Security Details: | €200,000,000 EURO COMMERCIAL PAPER PROGRAMME |
| (c) Job ID: | 83908 |
| (d) Date of Approval: | 21 December 2017 |

# Egoera-balantze bateratua > CAPEX

**Aparteko igoera CAPEXeko[1] inbertsioetan**
Hazkunde Planari eustera eta Eredu Industrial Berria ezartzera bideratuta

*(milioi eurotan)* *(salmentekiko %)*







| Birjartzea | Hazkundea | Industria Eredu Berria |
|---|---|---|
| • Oraingo instalazioak egokitzea<br>• IT ekipamendua | • Lantegi berria Newport-en (Gales, Erresuma Batua)<br>• CAF Mexiko jarduera berrirako prestatzea<br>• Nabe industrialen eta bitartekoen edukiera handitzea<br>• Ingeniaritzako eta Garapeneko zentro berria Beasainen<br>• Hazkunde Plana filialetan | • MiiRA instalazioen automatizazioa<br>• Lean Manufacturing-a<br>• Kitting-a<br>• Digitalizazioa |

[1] Aktibo materialei lotuta dago

# Burtsako informazioa

100 oinarria = 2016/01/02




## Akziodunen egitura 2017/12/31




| Burtsako informazioa | 2017 |
|---|---|
| Akzio bakoitzeko irabazi garbia (euro) | 1,24 |
| Burtsako kapitalizazioa itxieran (euro) | 1.171.716.035 |
| Akzio kopurua | 34.280.750 |
| Kotizazioko azken prezioa (euro) | 34,18 |
| Kotizazioko gehieneko prezioa (euro) | 39,50 |
| Kotizazioko gutxieneko prezioa (euro) | 32,22 |
| Bolumen negoziatua (balio kopurua) | 11.845.818 |
| Free-float errotazioa | % 71 |
| Diru negoziatua (euro) | 426.580.980 |



[1] % 3 baino gehiagoko partaidetza edo, paradisu fiskaletan egoitza duten inbertsiogileen kasuan, % 1eko partaidetza duten inbertsiogileak biltzen ditu



# AURREIKUSPENAK

Produktu eta zerbitzuen sakontasun handiagoan eta eragingarritasun handiagoaren etengabeko bilaketan oinarrituta, CAFek HAZKUNDERAKO bideari heldu dio DATORREN EKITALDIETARAKO

# Aurreikuspenak

## HAZKUNDEA



Enpresaren aldeok aurreikuspenak mantendu dira:

- 2018an negozio-zifraren bi digituko hazkundea mantentzea
- Hurrengo ekitaldiei dagokienez, irabazian goranzko joera honako hauei esker:
    a) Jardueraren igoera eta, batez ere, Europako fabrikazio-lantegietan
    b) Kontratazio-marjina historikoekin lerrokatuta dago
    c) Eskarien zorroan gauzatze-arrisku txikiagoa dago
    d) Lanen bikaintasuna eta eragingarritasuneko programak:
        - Hobekuntza fabrikazioaren eta industrializazioaren hobekuntzan
        - Optimizazioa hornitzaileen lanean kalitateari eta entregei dagokienez
        - Globalizazioa erosketetan eta kudeaketaren hobekuntza
        - Inbentarioaren kudeaketa eragingarria
        - Prozesuen digitalizazioa
- Gaur egungo eskarien zorro historikoari eusteko helburua. Horren guztiaren oinarria 6.000 milioi euro baino gehiagoko eskaintza irekien bolumen egonkorra da
- 2020ko lerro estrategikoak abian: hazkunde-plana negozio guztietan



# ERANSKINAK

- Emaitza-kontu bateratua
- Egoera-balantze bateratua
- 2017ko 4. hiruhilekoan kontratatutako proiektuak
- Informazio osagarria

# Emaitza-kontu bateratua

*(milioi eurotan)*

| Galera eta Irabazien Kontu Bateratuak | 2017 | 2016 | % ald. |
|---|---|---|---|
| Negozio-zifraren zenbateko garbia | 1.477 | 1.318 | % 12 |
| Beste sarrera batzuk(*) | 17 | 26 | (% 34) |
| Hornidurak eta izakinen arteko aldaketa | (620) | (624) | (% 1) |
| Pertsonaleko gastuak | (446) | (398) | % 12 |
| Ustiapeneko beste gastu batzuk | (247) | (187) | % 32 |
| EBITDA | 180 | 135 | % 33 |
| % marjina | % 12,2 | % 10,3 | |
| Ibilgetuaren amortizazioak | (35) | (35) | % 0 |
| Besterentzearen ondoriozko okerragotzea eta eragina | 0 | 11 | (% 99) |
| EBIT | 146 | 112 | % 30 |
| % marjina | % 9,9% | % 8,5 | |
| Finantza arloko sarrerak | 7 | 14 | (% 46) |
| Finantza arloko gastuak | (69) | (73) | (% 6) |
| Trukeko aldeak | (18) | 6 | (% 397) |
| Finantza arloko beste gastu/sarrerak (**) | 0 | 0 | (% 86) |
| Finantza arloko emaitza | (79) | (53) | % 49 |
| Partaidetza-metodoaren bidez baloratutako erakundeen emaitza | 1 | 0 | |
| Zergen aurreko emaitza | 68 | 59 | % 14 |
| Irabazien gaineko zerga | (25) | (22) | % 13 |
| Ekitaldiko emaitza garbia | 43 | 37 | % 14 |
| % marjina | % 2,9% | % 2,8 | |

(*) "Ustiapeneko beste sarrera batzuk" eta "enpresak bere aktiborako egindako lana" sailak barne ditu

(**) "Finantza-tresnak besterentzearen ondoriozko kaltea eta emaitza" eta "Finantza-tresnen arrazoizko balioaren aldaketa" sailak barne ditu

**Negozio-zifraren** zenbateko garbia % 12 handitu da. Igoera hori aurreko ekitaldiarekin alderatuta jarduera industrialak izan duen susperraldiak eta **negozio guztietan** izandako salmenta handiagoek ahalbidetu dute.

Salmenten % 87 **kanpoko merkatuari** dagokio.

Mexiko DF eta Toluca arteko linea berrirako aldirietako trenak, Holandako NSrako *Civity* motako unitateak, Northern frankiziarako eskualdeko trenak eta Caledonian Sleepers-en frankiziarako kotxeak (biak Erresuma Batuan) eta metro-unitateak Txileko Santiagorako izan dira 2017ko ekitaldian abian egon diren **fabrikazioko proiektu nagusiak.**

# Emaitza-kontu bateratua

*(jarraipena)*

*(milioi eurotan)*

| Galera eta Irabazien Kontu Bateratuak | 2017 | 2016 | % ald. |
|---|---|---|---|
| Negozio-zifraren zenbateko garbia | 1.477 | 1.318 | % 12 |
| Beste sarrera batzuk(*) | 17 | 26 | (% 34) |
| Hornidurak eta izakinen arteko aldaketa | (620) | (624) | (% 1) |
| Pertsonaleko gastuak | (446) | (398) | % 12 |
| Ustiapeneko beste gastu batzuk | (247) | (187) | % 32 |
| EBITDA | 180 | 135 | % 33 |
| % marjina | % 12,2 | % 10,3 | |
| Ibilgetuaren amortizazioak | (35) | (35) | % 0 |
| Besterentzearen ondoriozko okerragotzea eta eragina | 0 | 11 | (% 99) |
| EBIT | 146 | 112 | % 30 |
| % marjina | % 9,9 | % 8,5 | |
| Finantza arloko sarrerak | 7 | 14 | (% 46) |
| Finantza arloko gastuak | (69) | (73) | (% 6) |
| Trukeko aldeak | (18) | 6 | (% 397) |
| Finantza arloko beste gastu/sarrerak (**) | 0 | 0 | (% 86) |
| Finantza arloko emaitza | (79) | (53) | % 49 |
| Partaidetza-metodoaren bidez baloratutako erakundeen emaitza | 1 | 0 | |
| Zergen aurreko emaitza | 68 | 59 | % 14 |
| Irabazien gaineko zerga | (25) | (22) | % 13 |
| Ekitaldiko emaitza garbia | 43 | 37 | % 14 |
| % marjina | % 2,9 | % 2,8 | |

(*) "Ustiapeneko beste sarrera batzuk" eta "enpresak bere aktiborako egindako lana" sailak barne ditu

(**) "Finantza-tresnak besterentzearen ondoriozko kaltea eta emaitza" eta "Finantza-tresnen arrazoizko balioaren aldaketa" sailak barne ditu

Langileen gastuen bilakaera jardueraren igoerarekin batera dator, baita Taldean txertatutako erosketa korporatiboen emaitza gisa ere.

EBITDA eta EBIT handiagoa, abian diren proiektuen “mix-ari”, 2017 ekitaldiko industria-jarduera handiagoari eta ezarritako eraginkortasun-neurriei egotz dakizkiekeenak.

Finantza-emaitza okertu egin da truke-aldeen eraginaren ondorioz, funtsean, Brasilgo errealaren balio-galeragatik.

# Egoera-balantze bateratua

*(milioi eurotan)*

| Egoera Balantzea | 2017/12/31 | 2016/12/31 | % Ald. |
|---|---|---|---|
| Aktiboa | | | |
| Ibilgetu ukiezina | 71 | 40 | % 76 |
| Ibilgetu materiala | 245 | 229 | 0 |
| Partaidetza-metodoa aplikatuta zenbatutako inbertsioak | 20 | 19 | % 6 |
| Finantza-aktibo ez-korronteak | 577 | 666 | (% 13) |
| Zerga geroratuagatiko aktiboak | 145 | 159 | % -9 |
| Aktibo ez-korrontea | 1.056 | 1.114 | (% 5) |
| Izakinak | 72 | 60 | % 19 |
| Salmenten eta zerbitzuen prestazioaren araberako bezeroak | 1.277 | 1.306 | (% 2) |
| Beste zordun batzuk | 198 | 204 | (% 3) |
| Zerga korronteagatiko aktiboak | 10 | 13 | % -23 |
| Beste finantza aktibo-korronte batzuk | 127 | 140 | (% 10) |
| Beste aktibo-korronte batzuk | 3 | 3 | % 1 |
| Eskudirua eta beste zenbait aktibo likido baliokide | 372 | 392 | (% 5) |
| Aktibo-korronteak | 2.059 | 2.119 | (% 3) |
| Aktiboa, guztira | 3.115 | 3.233 | (% 4) |
| Pasiboa eta ondare garbia | | | |
| Ondare garbia | 760 | 784 | (% 3) |
| Pasibo ez korrontea | 7 | 5 | % 52 |
| Kreditu-erakundeekiko zor ez-korronteak | 626 | 648 | (% 3) |
| Beste zenbait finantza-pasibo ez-korronteak | 70 | 61 | % 14 |
| Zerga geroratuagatiko pasiboak | 154 | 172 | % -11 |
| Beste pasibo ez-korronte batzuk | 56 | 58 | % -4 |
| Pasibo ez-korronteak | 913 | 944 | (% 3) |
| Hornidura korronteak | 228 | 228 | 0 |
| Kreditu-erakundeekiko zor korronteak | 46 | 103 | (% 55) |
| Beste zenbait finantza-pasibo korronteak | 93 | 140 | (% 33) |
| Hartzekodun komertzialak eta ordaindu gabeko beste kontu batzuk | 1.075 | 1.035 | % 4 |
| Beste zenbait pasibo korronte | 0 | 0 | 0 |
| Pasibo korrontea | 1.443 | 1.505 | (% 4) |
| Pasiboa eta Ondare garbia, guztira | 3.115 | 3.233 | (% 4) |

## Ibilgetu ukiezina

2017ko ekitaldian BWB eta Rifer erosi zituztenean sortutako 24 milioiko Merkataritza Funtsa biltzen du.

## Bilgetu materiala

2017an ibilgetu materialean egindako inbertsioa 44 milioi eurokoa izan da eta, horrenbestez, azken urteotako inbertsio mailak gainditu dira.

## Finantza-aktibo ez-korronteak

Batez ere, Brasilgo eta Mexikoko emakida-kontratuei lotutako aktiboak dira. Bi kontratu horietan, kuoten araberako etorkizuneko fluxuak (BRL eta USB txanponetan, hurrenez hurren), zehaztuta eta bermatuta daude (demanda-arriskurik gabe). BRLtako fluxuak tokiko inflazioari indexatuta daude.

Jaitsiera izan da urtean kontratu horien baitan jasotako kobrantzak eta dibisaren eragina direla eta (BRLren eta USDren balioa gutxitu da).

## Aktibo korronteak

Jaitsiera bezeroen kontu-sailean aldekoagoakoak diren kobrantza-mugarriak dituzten proiektuak gauzatu izanaren ondorioz. Horrek guztiak jardueraren igoera indargabetu du.

# Egoera-balantze bateratua

*(jarraipena)*

*(milioi eurotan)*

| Egoera Balantzea | 2017/12/31 | 2016/12/31 | % Ald. |
|---|---|---|---|
| Aktiboa | | | |
| Ibilgetu ukiezina | 71 | 40 | % 76 |
| Ibilgetu materiala | 245 | 229 | 0 |
| Partaidetza-metodoa aplikatuta zenbatutako inbertsioak | 20 | 19 | % 6 |
| Finantza-aktibo ez-korronteak | 577 | 666 | (% 13) |
| Zerga geroratuagatiko aktiboak | 145 | 159 | % -9 |
| Aktibo ez-korrontea | 1.056 | 1.114 | (% 5) |
| Izakinak | 72 | 60 | % 19 |
| Salmenten eta zerbitzuen prestazioaren araberako bezeroak | 1.277 | 1.306 | (% 2) |
| Beste zordun batzuk | 198 | 204 | (% 3) |
| Zerga korronteagatiko aktiboak | 10 | 13 | % -23 |
| Beste finantza aktibo-korronte batzuk | 127 | 140 | (% 10) |
| Beste aktibo-korronte batzuk | 3 | 3 | % 1 |
| Eskudirua eta beste zenbait aktibo likido baliokide | 372 | 392 | (% 5) |
| Aktibo-korronteak | 2.059 | 2.119 | (% 3) |
| Aktiboa, guztira | 3.115 | 3.233 | (% 4) |
| Pasiboa eta ondare garbia | | | |
| Ondare garbia | 760 | 784 | (% 3) |
| Pasibo ez korrontea | 7 | 5 | % 52 |
| Kreditu-erakundeekiko zor ez-korronteak | 626 | 648 | (% 3) |
| Beste zenbait finantza-pasibo ez-korronteak | 70 | 61 | % 14 |
| Zerga geroratuagatiko pasiboak | 154 | 172 | % -11 |
| Beste pasibo ez-korronte batzuk | 56 | 58 | % -4 |
| Pasibo ez-korronteak | 913 | 944 | (% 3) |
| Hornidura korronteak | 228 | 228 | 0 |
| Kreditu-erakundeekiko zor korronteak | 46 | 103 | (% 55) |
| Beste zenbait finantza-pasibo korronteak | 93 | 140 | (% 33) |
| Hartzekodun komertzialak eta ordaindu gabeko beste kontu batzuk | 1.075 | 1.035 | % 4 |
| Beste zenbait pasibo korronte | 0 | 0 | 0 |
| Pasibo korrontea | 1.443 | 1.505 | (% 4) |
| Pasiboa eta Ondare garbia, guztira | 3.115 | 3.233 | (% 4) |

## Ondare garbia

Ekitaldiko emaitzaren eraginak eta bihurketa-aldeak (batez ere Brasilgo errealarenak) dira ondarean izandako mugimendu nagusiak.




## Pasibo ez-korrontea

Kreditu-erakundeekin dauden zor ez-korronteak 38 milioi eurotan gutxitu dira BRLaren eta USDaren debaluazioak izandako aldeko eragina dela eta.

# Egoera-balantze bateratua

*(jarraipena)*

*(milioi eurotan)*

| Egoera Balantzea | 2017/12/31 | 2016/12/31 | % Ald. |
|---|---|---|---|
| Aktiboa | | | |
| Ibilgetu ukiezina | 71 | 40 | % 76 |
| Ibilgetu materiala | 245 | 229 | 0 |
| Partaidetza-metodoa aplikatuta zenbatutako inbertsioak | 20 | 19 | % 6 |
| Finantza-aktibo ez-korronteak | 577 | 666 | (% 13) |
| Zerga geroratuagatiko aktiboak | 145 | 159 | % -9 |
| **Aktibo ez-korrontea** | **1.056** | **1.114** | **(% 5)** |
| Izakinak | 72 | 60 | % 19 |
| Salmenten eta zerbitzuen prestazioaren araberako bezeroak | 1.277 | 1.306 | (% 2) |
| Beste zordun batzuk | 198 | 204 | (% 3) |
| Zerga korronteagatiko aktiboak | 10 | 13 | % -23 |
| Beste finantza aktibo-korronte batzuk | 127 | 140 | (% 10) |
| Beste aktibo-korronte batzuk | 3 | 3 | % 1 |
| Eskudirua eta beste zenbait aktibo likido baliokide | 372 | 392 | (% 5) |
| **Aktibo-korronteak** | **2.059** | **2.119** | **(% 3)** |
| Aktiboa, guztira | 3.115 | 3.233 | (% 4) |
| Pasiboa eta ondare garbia | | | |
| **Ondare garbia** | **760** | **784** | **(% 3)** |
| Pasibo ez korrontea | 7 | 5 | % 52 |
| Kreditu-erakundeekiko zor ez-korronteak | 626 | 648 | (% 3) |
| Beste zenbait finantza-pasibo ez-korronteak | 70 | 61 | % 14 |
| Zerga geroratuagatiko pasiboak | 154 | 172 | % -11 |
| Beste pasibo ez-korronte batzuk | 56 | 58 | % -4 |
| **Pasibo ez-korronteak** | **913** | **944** | **(% 3)** |
| Hornidura korronteak | 228 | 228 | 0 |
| Kreditu-erakundeekiko zor korronteak | 46 | 103 | (% 55) |
| Beste zenbait finantza-pasibo korronteak | 93 | 140 | (% 33) |
| Hartzekodun komertzialak eta ordaindu gabeko beste kontu batzuk | 1.075 | 1.035 | % 4 |
| Beste zenbait pasibo korronte | 0 | 0 | 0 |
| **Pasibo korrontea** | **1.443** | **1.505** | **(% 4)** |
| Pasiboa eta Ondare garbia, guztira | 3.115 | 3.233 | (% 4) |

## Pasibo korrontea

Kreditu-erakundeekin dituen epe laburreko zor korronteak gutxitu egin dira 2016ko ekitaldiarekin alderatuta.

“Beste finantza-pasibo korronte batzuk”: kontu-sail hori gutxitu egin da truke-tasaren estalduren merkatuko balioa hobetu e ta epemugan kitatu egin delako.

Hartzekodun komertzialak eta Ordaintzeke dauden beste kontu batzuk zertxobait igo dira **Hornitzaileen kontu-sailean izandako igoera** Bezeroen aurrerakinean ikusitako jaitsierarekin **konpentsatu** delako.

Bezeroen aurrerakinak

*(milioi eurotan)*



# 2017ko 4. HHan kontratatutako proiektuak

## West Midlands (Erresuma Batua)

Urriaren 17an, West Midlands Trains Ltd. enpresak, Abellio, Japan East Railway Company eta Mitsui & Co Ltd. enpresek osatzen dutenak, CAF hautatu zuen West Midlands frankiziaren bidez operatuko duten diesel-unitateak hornitzeko. Erresuma Batuko Birmingham eskualdeko hiriak eta udalerriak lotuko dituzte.



Proiektuak honako hauek biltzen ditu:

- 4 kotxeko 14 diesel-unitateren hornikuntza
- 2 kotxeko 12 diesel-unitateren hornikuntza
- Euskarri teknikoko eta logistikoko zerbitzuen prestazioa

## Stockholm (Suedia)

Urriaren 24an, CAFek Stockholm hiriko garraio-sarearen arduraduna den enpresarekin, SL AB (Storstockholms Lokaltrafik) izenekoarekin, hiri horretarako tranbiak hornitzeko lanak handitzeko proiektua sinatu zuen. Eskandinaviako hiriburuan dagoeneko zirkulazioan dauden eta CAFek fabrikatutako 22 unitateak ugarituko ditu proiektu berriak.



Proiektua handitzeko lan horrek honako hauek biltzen ditu:

- 12 unitatearen hornikuntza

Unitate horiek lehen seihilekoan kontratatutako 3 kotxeko 8 unitateei gehitu behar zaizkie.

# 2017ko 4. HHan kontratatutako proiektuak

*(jarraipena)*

## De Lijn (Belgika)

Urriaren 25ean, CAFek Belgikako De Lijn hiriko Flandriako Garraio Konpainiarekin tranbiak hornitzeko proiektua sinatu zuen. Tranbia horiek Anberes, Ekialdeko Flandria eta Mendebaldeko Flandria probintzietarako izango dira.

Honako hauek biltzen ditu proiektuak:

- Hainbat loteko 146 unitateren hornikuntza (gutxi gorabehera)
- 48 unitate fabrikatzeko lehen bi loteak aktibatuta daude



## Auckland (Zeelanda Berria)

Azaroaren 7an, CAFek Auckland Transport-ekin, Zeelanda Berriko Auckland hiriko sarearen operazioaz arduratzen den enpresarekin, unitate elektrikoak hornitzeko proiektua sinatu zuen. Unitate horiek aurretik CAFek bezero berari hornitu zizkion eta 2014tik zirkulazioan dauden 57 unitateei gehituko zaizkie.

Honako hauek biltzen ditu proiektuak :

- 3 kotxeko 15 unitatearen hornikuntza
- Unitateen mantentze-lana 8 urtez



# 2017ko 4. HHan kontratatutako proiektuak

*(jarraipena)*

## Manila (Filipinak)

Azaroaren 20an, Filipinetako Errepublikako Garraio sailak Mitsubishiri eta CAFi (unitateen fabrikatzaile gisa) esleitu zion Manila hiriko Manila Light Rail Transit (FRT) 1. linearako LRV motako unitateen hornikuntza.

Honako hauek biltzen ditu proiektuak :

- 2 LRVko 30 unitateren hornikuntza (bakoitzak 2 kotxe)



## Napoles (Italia)

Azaroaren 20an, CAFek Italiako Napoles hiriko udalarekin sinatu zuen hiri horretarako metro-unitateak hornitzeko kontratua.

Honako hauek biltzen ditu proiektuak :

- 6 kotxeko 10 unitateren hornikuntza
- Gainera, kontratuak beste 10 unitate hornitzeko aukera jasotzen du



# 2017ko 4. HHan kontratatutako proiektuak

*(jarraipena)*

## Mauricio Metro Express (Maurizioko Errepublika)

Abenduaren 26an, CAFek Indiako Larsen & Toubro Ltd. Enpresarekin URBOS tranbiak hornitzeko kontratua sinatu zuen. Tranbia horiek Maurizioko bost hiri nagusiak lotuko dituzte (Curepipe, Vacoas, Rose Hills, Quatre Bornes eta hiriburua, Port Louis).

Honako hauek biltzen ditu proiektuak :

- 7 moduluko 18 unitateren hornikuntza
- Seinaleztapen-sistema, ibilgailua automatikoki lokalizatzeko sistema (AVLS), zirkulazio-seinalearen lehentasunezko sistema (TSPS), gordailurako ekipamendua eta gidatze-simulagailua



## Budapest (Hungaria)

CAFek Budapest hiriko garraioaz arduratzen den enpresarekin, BKK (Budapesti Közlekedési Központ) izenekoarekin, hiri horretarako URBOS motako eta zoru baxuko tranbiak hornitzeko kontratua sinatu zuen. Tranbia horiek CAFek fabrikatu zituen eta dagoeneko Hungariako hiriburuan zirkulazioan dauden 47 unitateei gehituko zaizkie.

Honako hauek biltzen ditu proiektuak :

- 5 moduluko 21 unitatearen hornikuntza
- 9 moduluko 5 unitateren hornikuntza
- Unitateen mantentze-lana 3 urtez



# Informazio gehigarria

**Uztaila/17 - CAFek Britainiako BWB ingeniaritza  ospetsuaren eskuratzea lortu du**
CAFek erabateko soluzioen hornitzaile gisa duen posizioa indartuz




Garraio sistemak

Osagarritasuna




Sinergiak

Balioa sortzea

# Informazio gehigarria

Uztaila/17 - CAF MiiRAk Italiako RIFER SRL eskuratu du
Ardatz muntatuen eta bagoien mantentze-lanen negoziora dibertsifikatuz

Treneko flota mantentzeko zerbitzuen portfolio handia:

Jarduera nagusia:
**Ardatz muntatuen erabateko mantentze-lana**

(is1,is2 eta is3), gurpilen aldaketa eta erreduktoreen mantentze-lanak barne.

Beste jarduera batzuk
Bagoiaren prebentziozko mantentze-lana.
Bagoiaren mantentze-lan arina.



- Italiako merkatuan kokatzea
- Merkatu berrietarako sarbidea (Suitza eta Erdialdeko Europa)
- MiiRAren fabrikazio jarduerarekin osagarria
- Eskaera-zorroaren ikusgarritasun handiagoa.
- Ordezko piezak hornitzeko aukera

# Informazio gehigarria

## Uztaila/17 - CAFek Erresuma Batuan duen instalazio berria 2018. urtearen erdialdean egongo da erabilgarri






- ✓ CAFek 90eko hamarkadatik jarduten du Erresuma Batuan:
  - Heathrow Express
  - NIR (Ipar Irlandako trenbideak)
  - Edinburgorako tranbiak
  - Birminghamerako tranbiak
- ✓ CAFek 2106an kontratu garrantzitsuak esleitzea lortu du Erresuma Batuan (> 1.000 M€)
- ✓ Herrialdean trenbide-esparruko inbertsio handiak aurreikusita daude:
  - Trenbide frankiziak berritzea,
  - Hiriko merkatu inbertsioak, eta abar

CAF Newporten (Galesen) finkatuko du bere produkzioa



- Greenfield. 46.000 $m^2$-ko lursaila.
- Hasieran 300 enplegatuko plantilla
- Tokiko hornitzaileen erabilera
- Tren-ibilgailu sorta osoa fabrikatzea
- Gerora begira handitzeko gaitasuna, herrialdean lortutako kontratuen arabera





# Lege-oharra

Dokumentu hau berariaz informazioa emateko sortu da.

Dokumentu honetan jasotako informazioa ez dute egiaztatu hirugarren independenteek; beraz, ez dago berariaz edo inplizituki inolako bermerik bertan jasotako informazio, iritzi edo adierazpenen inpartzialtasunaren, zehaztasunaren, osotasunaren edo zuzentasunaren inguruan.

Dokumentu honetan, gerora begirako aurreikuspen eta zenbatespenei buruzko adierazpenak jaso daitezke, baina ez dira etorkizuneko errendimenduaren edo emaitzen bermetzat jo behar; izan ere, arriskuak eta zalantzak egon daitezke tartean, eta horietako asko ez daude CAFen kontrolpean. Beraz, baliteke emaitza errealak zeharo ezberdinak izatea adierazitakoekin edo aurreikuspen eta zenbatespen horietan era inplizituan jasotakoekin alderatuta.

Horrenbestez, ez dira inola ere interpretatu behar CAFen akzioak erosteko, saltzeko edo horietan parte hartzeko aholku edo gomendio gisa. Era berean, helburua ez da edozein produktu edo zerbitzu finantzario eskaintzea.

Dokumentu honetan jasotako informazioa eta iritziak dokumentua sinatu den egunean eman dira, eta aurretiaz ohartarazi gabe egiaztatu, amaitu eta aldatu behar dira. CAFek ez du bere gain hartzen zenbatespen eta aurreikuspen horiek jendaurrean eguneratzeko edo aztertzeko betebeharra, bai informazio berria dagoenean, bai etorkizuneko beste ekitaldi batzuetan, edota beste egoera batzuetan.

Hirugarren batek dokumentu honetan jasotako informazioaren ondorioz hartutako edozein erabaki berariaz eta bakarrik haren erantzukizuna izango da. Hala, ez CAF, ez bere filialak, ez arduradunak ez dira izango sor daitezkeen kalteen erantzule. Halaber, ez dute inolako erantzukizunik hartuko dokumentu honen edo bere edukiaren erabilerarekin lotuta.

Dokumentu hau eta bertan jasotako informazioa CAFen jabetzakoak dira, eta ezin izango da kopiatu, erreproduzitu, argitaratu edo banatu (guztiz edo zati batean), baldin eta CAFek aurretiaz idatziz adostasuna ematen ez badu.